

**1. Eranskina: Software
askea:
hausnarketarako gida**

1. HEZKUNTZA IREKIA

Azken ia hiru urteak gure ikastolan bereziak izan direla onartu beharrean gaude. Teknologia berrien inguruan jaso dugun informazioa eta horren ondorioz pilatu dugun ezagutzak, modu batera edo bestera, gure lanarekiko dugun pertzepzioa aldatu duela onartu beharrean gaude. Ezin badugu onartu ere aurreko jarrera erabat orokortuta dagoela gure ikastolan, errealitatea bada behintzat gutako batzuk iraultza txiki bat bizi izan dugula azkenaldi honetan eta etorkizun laburrean iraultza hori ikastolako esparru guztietara hedatuko dela.

Epe honetan, behin baino gehiagotan hitz egin dugu gure artean norberaren ekarpenak partekatzeari buruz, elkarlanean oinarritutako proiektuak aurrera ateratzeari buruz, ezagutza trukatzeari buruz... azken finean, hezkuntza komunitate zabala eraikitzeari buruz, non denok denongandik ikasteko aukera izango dugun.

Jokabide hau mundu mailan poliki poliki nagusitzen ari den jarrera bat da. Gu bezala, hezitzaile askok, *“persona bakoitzak giza ezagutzaren osotasunera sarbidea izan eta lagundu ahal izango duen mundua eratzen ari dira”*. Honekin batera, *“pedagogia berri baten haziak ere landatu dituzte; pedagogia berri horretan, hezitzaileak eta ikasleek elkarrekin ezagutza landu eta garatuko dute, prozesuan beren gaitasunak eta ulermena sakonduz”*.

Aurreko paragrafoko aipu horiek pasa den 2007ko irailaren 15ean, Afrikako Cape-Town hirian sinatu zen **“Hezkuntza Irekiaren aldeko Lurmutur Hiriko Aitorpena: Hezkuntza Baliabide Irekien promesa zabalduz”** izeneko dokumentutik aterata daude.

Aitorpen horren arabera, *“sortzen ari den hezkuntza arloko mugimendu horrek, kide hezitzaileekin ideia onak partekatzeko ezarritako tradizioa eta interneteko elkarlanaren kultura interaktiboa konbinatzen ditu”*. Horrela hezitzaile horiek, *“hezkuntzako baliabideak mugarik gabe erabili, beharren arabera egokitu, hobetu eta berriz banatzeko askatasunean”* sinesten dute. Denon eskura ipinitako *“baliabide horiek hainbat gauza biltzen dituzte: lizentzia irekiak dituzten ikastaroetako materialak, eskoletako plangintzak, testu liburuak, jolasak, softwarea eta irakaskuntza eta ikaskuntza arloan lagungarri izan daitezkeen beste material batzuk”*.

Aitorpen horretan adierazten denez ere, *“baliabide horiek guztiek hezkuntzarako sarbidea errazagoa izatea eragiten dute, bereziki, ikaskuntza materialentzako dirua urria den lekutan”*. Nik gehiago esango nuke oraindik. Izan ere, gurea bezalako herrialde txiki batean, ekarpen hauei esker aukera daukagu gure ama-hizkuntzan sortu eta partekatutako baliabide digitalak eskura izatea. Hizkuntza gutxituen kasuan, hezitzaile hauen lanak berebiziko garrantzia duela esan beharko genuke.

Hala ere, hezkuntza irekia ez dago soilik heziketako baliabide material irekietara mugatuta. *“Lankidetzako ikaskuntza errazten duten teknologia irekietan ere oinarritzen da”*.

Baina baliabide irekiak sortzea eta lankidetzako ikaskuntza bermatzen duten teknologien inplementazioa orokortze prozesuan hainbat oztopo aurrikusten dira. *“Hezitzaile gehienek ez dute berririk, zabalik dauden hezkuntza baliabide kopuru gero eta handiagoaren gainean. Gobernuko eta hezkuntza arloko erakunde askok ez du horren berri edo ez dago konbentzitura hezkuntza irekiak ekar ditzakeen onurekin”*.

Oztopo horiek gainditzeko hezkuntza mundua osatzen dugun kide guztiok hartu beharko genituzkeen konpromiso batzuk adierazten dira. Hezkuntza baliabide irekien irismena eta eragina handiagotzeko hiru estrategia definitzen dira. Honatx estrategia hauek dokumentuan agertzen diren moduan:

- **Hezitzaile eta ikasleak:** lehenik eta behin hezitzaileak eta ikasleak animatu nahi ditugu modu aktiboan hezkuntza irekiaren mugimendu gero eta handiagoan parte har dezaten. Parte hartzeak hauek biltzen ditu: hezkuntza baliabide irekien sorrera, erabilera, egokitzapena eta hobekuntza; ezagutzaren sorrera, deskubrimendu eta lankidetzaren arloan eraikitako hezkuntzako praktikak hartzea; eta kide eta parekoak esku hartzera gonbidatzea. Baliabide ireki horien sorrera eta erabilera hezkuntzako zati gisa hartu behar dira eta dagokion moduan babestu eta ordaindu beharko lirateke.
- **Hezkuntza Baliabide Irekiak:** bigarrenik, hezitzaile, egile eta erakundeei dei egiten diegu baliabideak modu irekian argitara ditzaten. Hezkuntzako baliabide ireki horiek lizentzia behar lukete edozein pertsonak erabili, berrikusi, itzuli, hobetu eta partekatu ahal izateko, modu idealean, lege arloko mugarik gabe, eskumen egoki baterako edo ondoriozko lanak partekatuzeko sortzailearen eskakizun bat besterik behar izan gabe. Baliabideak erabilera nahiz edizioa erraztuko duten formatuetan argitaratu beharko lirateke, eta plataforma tekniko ugarietara egokitzeko moduan. Eta, ahal denean, ezintasun fisikoak dituztenentzat eskuragarri egon beharko lukete; baita Internetarako sarbiderik ez dutenentzat ere.
- **Hezkuntza Irekiaren Politikak:** hirugarrenik, eskoletako batzorde edo gobernuek, fakultate eta unibertsitateek hezkuntza irekietako politikak lehentasuntzat hartu beharko lituzkete. Modu idealean, zergadunen zergekin finantzaturako hezkuntza baliabide guztiek hezkuntza baliabide irekiak izan beharko lukete. Ziurtagiri prozesuek hezkuntza baliabide irekiei lehentasuna eman beharko liekete. Hezkuntza baliabideen zentroek bildumen baitan Hezkuntzaren baliabide irekiak modu aktiboan sartu eta nabarmendu beharko lituzkete.

Estrategia horiek edonorentzat dira zentzuzkoak. *“XXI. mendeko irakaskuntzan eta ikaskuntzan inbertsio adimentsuak dira. Izan ere, denon elkarlanarekin ekoiztutako baliabideek ikaskuntza hoberantz bideratzea ahalbidetuko lukete. Irakasleei beren lanetan nabarmentzea ahalbidetuko diete eta aukera gehiago emango dizkiete ikuspegi eta mundu mailako eragin handiagoa lortzeko. Irakaskuntzaren berrikuntza bizkortuko dute. Ikasleei ikaskuntzaren gaineko kontrol handiagoa emango diete”*.

Gure ikastolan goran aipaturako hiru konpromiso horien alde, modu batean edo bestean, urratsak ematen hasiak ginen. Aurreko paragrafoan gure ikastolak bizi izan dituen egoera batzuk deskribatzen dira, hain zuzen ere. Horregatik, Jakintza ikastolak aitorten honekiko atxikimendu ofiziala adierazi beharko lukeela iruditzen zaigu. Bertan aipatzen diren konpromisoen lorpenaren mesedean lan egingo dugula aitortu beharko genukela iruditzen zaigu. Horrela, konpromiso hauek gure Hezkuntz Proiektuan txertatu beharko genituzkeela uste dugu ere, gure ikastolaren izaeraren adierazgarri eta berezitasun bezala.

Goiko proposamenak aurrera egiteko erabakia hartzen badugu, gure egungo egoera konpromiso horietara egokitzeko ahalegina egin beharko genukela uste dugu. Alegia, bigarren atalean, *“hezitzaile, egile eta erakundeei dei egiten diegu baliabideak modu irekian argitara ditzaten”* edota *“Baliabideak erabilera nahiz edizioa erraztuko duten formatuetan argitaratu beharko lirateke, eta plataforma tekniko ugarietara egokitzeko moduan”* esaten denean, une honetan gure ikastolaren errealitatea hor esaten denarekin bat ez datorrela jabetuko gara. Izan ere, ikastolan erabiltzen ditugun software baliabide ia guztiek jabetza pribatua dute. Printzipioz, eta legeak zehazten duenaren arabera, baliabide horiek ezin dira libreki erabili, kopiatu edo eraldatu. Baliabide horiek ezin ditugu gure ikasleen artean banatu. Eta aplikazio horiek erabiliz sortzen ditugun baliabide batzuk ere, ez dira plataforma guztientzat irekiak. Hauetako batzuk ez dituzte estandar irekiak errespetatzen.

Egoera horren aurrean, asumitzen ditugun konpromisoetara egokitzeko beharra daukagu baldin eta hezkuntza irekiaren aldeko apustu erreala egin nahi badugu.

Horrexegatik, txosten honen bitartez, software askearen aldeko apustua egiteko proposamena luzatzen da.

2. ZEINTZUK DIRA ALDAKETARAKO AURRIKUSTEN DIREN ARRAZOI NAGUSIENAK?

Goiko proposamenaren aurkezpen zehatza egin aurretik, garbi adierazi nahiko genuke software askeraen aldeko apustua ez dela bi egunetan hartutako erabaki bat. Duela hilabete batzuetatik hona baloratzen ari ginen erabaki bat zen. Erabaki hau orain aurkeztearen arrazoia, dagoeneko aldaketarako unea izan daitekeela adierazten diguten kanpo faktore batzuen metatzea izan daiteke. Hauen artean, nagusienak hauek izango lirateke:

- Software askearen bilakaera azkenaldi honetan nabarmena izan da. Une honetan erabil daitezkeen sistema eragile askeetako batzuk erabat fidagarriak eta erabilerrazak bilakatu dira. Ohiko lanak egiteko erabiltzen ditugun aplikazio pribatibo gehienek kasurako, software askeko aukera batzuk konpletoagoak izan daitezkeela ikusten dugularik.
- Gehien erabiltzen ditugun aplikazio propietarioen artean Microsoft Office eta Windows sistemaeragilea izan daiteke. Duela gutxi kaleratu diren aplikazio bi hauen azken bertsioetan bateragarritasun arazoak sortu dira aurreko bertsioekiko. Alegia, Office 2007k dokumentuak gordetzeko formatu berriak ekarri ditu, hauek bateraezinak izanik aurreko bertsioekiko. Windows Vistak, berriz, erabilitako hardwarearen kontrolatzaileekin ere bateragarritasun arazo handiak eman ditu. Windows Xpean arazorik gabelan egiten duten ekipo askok arazoak ematen dituzte Vistan, hardware honetarako kontrolatzaileak ez baitira sortu Vistarako. Laister izango ditugu ekipo berriak ikastolan; ziurrenik ekipo hauek Microsoften aplikazio berri hauek instalatuta ekarriko dituzte zuzenean lantegitik. Iruditzen zaigu aplikazio hauek bateragarritasun arazoak suposatuko ditzutela dagoeneko ikastolan erabiltzen dugun etxe bereko aplikazioekin.
- Sarreran aipatu dugun lez, softwaregintzara dedikatzen diren enpresek euren negozio politikak aldatzen hasiak dira. Horixe da adibidez Microsoftek azken

hilabeteotan aurkezten ari den jarrera behintzat. Alegia, orain arte Microsoftek bere softwarearen “pirateoari” ematen zion babesarekin amaitzeko asmoa duela dirudi. Horixe da, behintzat, sare publikoko eta kristau eskolekin sinatu berri duen kontratutik ondorioztatzen dena. Uda honetan, antzeko kontratu bat sinatu zen, baita ere, Ikastolen Elkartearekin. Beraz, une honetan arazo ekonomiko baten aurrean egon gaitzke.

- Gure ikastolan, lokalean instalatutako aplikazioekiko menpekotasuna txikitzen ari da azkenaldi honetan. Internet aplikazio plataforma bezala erabiltzen hasita gaude azken hiru urteotan. Ikastolako baliabide ugari igotzen ditugu sarera; horrela, lehen lokalean gordeta genituen material hauek editatzeko beharrezkoak ziren aplikazioak indarra galtzen joan dira.
- Pixkanaka irakasleriak internet berri honen inguruko ezagutza biltzen joan da. Irakasleontzat berria izan den esparru honetan, komunitate ezberdineko kide bihurtu gara. Komunitate hauen lan egiteko modua ezagutu dugu eta etorkizuna hortik doala sinesten dugu. Komunitatean garatutako aplikazioak aurrera nola ateratzen diren ezagutu dugu eta hauek, enpresa mailan garatu daitezkeenak bezain onak, fidagarriak eta egonkorak izan daitezkeela konturatu gara. Horrela, une honetan komunitate hauetatik bultzatzen den software librearen aldeko jarrera nabarmenagoa da irakasle on artean duela urte batzuekiko alderatuz. Sensibilizazio maila altuagoa lortu dugula errealitate bat dela uste dut.
- Curriculum berrietan definitzen diren kompetentziak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan aipatzen diren metodologia berritzaileak aurrera eramateko bide egokiena software librea erabiltzea delako. Curriculum berrietarako saltoa ematea tokatzen zaigun garai honetan, software pribatiboak definitutako kompetentzia digitalen aurka egiten duela uste dugu.
- Erabat ziurtatzea ausardia gehiegi izatea bada ere, softwaregintzaren uneko egoera ez bada zeharo aldatzen, software askerako migrazioa derrigorrezkoa izango dela baieztatu dezakegu. Premisa honetatik abiatuta, zalantzarik ez dago migrazioa lehenbailehen egiteak arazoak minimizatzea ekarriko duela, izan ere, migratu beharreko dokumentazio eta egokitu beharreko hardware bolumena txikiagoa izango da

Azken puntu honek garrantzia berezia duela iruditzen zaigu. Uste dugu oinarritzko kompetentzietan definituriko prozedurazko eta jarrerazko helburu asko software pribatiboaren erabileraren kontra daudela. Irakaskuntzan software askea erabiltzea beraz, arrazoi pedagogiko eta etikoz beteta dago. Azter ditzagun, hurrengo atalean, zeintzuk diren ikusten diren arrazoi hauetako batzuk.

3. SOFTWARE ASKEA IRAKASKUNTZAN. ZERGATIK?

Azken urteotan ahalegin handiak egin ditugu gure ikastolan IKTek suposatzen duten iraultza gure jardunean txertatzeko. Ahalegin hauek guztiek helburu bi izan dituzte nagusiki: alde batetik, inplementazioa errealitate bat izateko beharrezkoak ziren baliabideak zerrendatu eta lortu eta bestetik integrazio hau erabiltzaileontzat ahalik eta modu gardenean ematea. Azpiegitura mailako inbertsio handiak egin dira, gure ikastola ondo hornituta ikastetxea

izan dadin. Tresna berri hauen apendizai erabiltzearen, erabili dugun softwarea pribatiboa izan da nagusiki.

Izan ere, ohikoa bihurtu da ordenagailu bat erosterakoan ekipoan izango dugun softwarea lizentziarik gabekoa izatea. Gure ikasle, irakasle nahiz gurasoek, ikastaro bat egiten dutenean gehienetan lizentziadun aplikazio bati buruzko formazioa jasotzen dute (Moffice, Photoshop...) Kontutan izanik aplikazio hauen lizentzien kostua jasanezina dela partikular batentzat, aplikazioa bera lizentziarik gabeko kopia pribatu baten bitartez banatzen da.

Egoera horren aurrean, ikastolaren jokaera ere antzeko bidetik joan da. Kontutan izanik gure ikasleek erabiltzen duten softwarearen ezaugarriak, guk ere bide berdina jarraitzea erabaki dugu, ekipoetan instalatutako aplikazio gehienak legez kanpokoak izanik.

Konturatu gabe, irakaskuntzan IKTen benetako inplementazioaren aurkako erabakia hartu dugula uste dugu. Ez gara konturatu arrazoi ekonomikoengandik nagusiki hartutako erabaki honek gure ikasleen etorkizunaren gaineko hipotekatze bat suposatuko duela. Izan ere, erabaki honen ondorioz aplikatu dugun hezkuntza eredu markakomertzialetan oinarrituta egon da eta ez kontzeptuetan. Horrela, gure ikasle eta irakasleei bide bakarra eskaini diegu gauzak egiteko orduan eta ez dute ezagutzen gauza bera egiteko egon daitezkeen bide ezberdinak. Printzipio honen arabera produktu jakin baten erabilera bultzatzen ari gara, hauekin burutu daitezkeen zereginen alderdi operatiboan soilik zentratuz, zeregin horiek betetzeko beharrezkoak diren gaitasunei garrantzirik eman gabe.

Ez genuke nahi, ezta ere, software pribatiboaren garrantzia minimizatu nahi. Lizentzia pribatiboa duen software batek apendizai bultzatu eta ahalbidetzen baliabide bat izan daitekeela garbi dago; aurkezpen multimedia batek funtzio bera burutu dezake software pribatiboa nahiz eta software askea erabiliz. Baina lehenengoarekin helburua apendizai hori bereganatzeko nahikoa da softwarearen ezaugarriak ezagutzea eta bigarrenarekin berriz, kontsumo soiletik alden du eta atzean dagoen teknologiarri erreparatzen dio. Bigarren honekin erabiltzaileok teknologiarren ezagutzarako askatasuna dugun bezala, lehenengoarekin erabilera soilerako prestatzen ditugu gure ikasleak.

Erabiltzaileek duten askatasun hori bera irakaskuntzan software askea bultzatu beharreko arrazoi nagusien arteko bat baina ez da bakarra. Gure iritziz, irakaskuntzan erabiltzen dugun softwarea askea izan beharko luke arrazoi hauengatik:

- SOFTWARE ASKEA HEZITZAILEA DA

Imajina dezagun Natur Zientzietako saio bat. Ikasleei kutxa beltz itxi bat ematen zaie. Bertan ura botatzerakoan, ikusten ez den hazi bat ernalduko da, landarea lortzeko jarraituko den prozedura osoa izkutuan geratuko delarik.

Imajina dezagun matematikako klase bat. Ikasleei zatiketaren kontzeptua azaltzen zaie eta kalkulagailu baten erabilera ere irakasten zaie. Baina zatiketa konplexuak egitera debekatzen zaie hauek aplikazio industrialetan erabiltzen diren mekanismo sekretu batzuetan oinarrituta baitago.

Imajina dezagun literatura klase bat non ikasleek liburu baten argumentua ezagutzearekin konformatu behar diren, bertan erabilitako estilo elementuak beste norbaitek erabiltzea sahiestea nahi delarik.

Goiko adibide txepel horien bitartez gure ikasleek software ez askea erabiltzen dutenean gertatzen dena adierazteko baliagarriak izan daitezke. Alegia, software pribatiboa erabiltzen dutenean, ikasleak ezagutzaren atarian ipintzen ditugu baina benetako ezagutza lortzeko aukerarik ez diegu eskaintzen.

Garbi dago gure ikasle guztiak ez direla etorkizunean programatzaileak izango. Seguraski hauetako gehienek ere ez dute matematika, literatura, musika edota biologia izango etorkizuneko lanbide bezala. Baina halere, ikastolaren eginkizuna da, bere ikasle nahiz irakasleek erabiliko duten ondare teknologikoa ezagutzeko eta partekatzeke duten eskubide eta askatasuna bermatzea. Komunitateko kide hauen hasierako kuriositate hori trebezia batean bilakatuko balitz, ikasleen beste gaitasun bereziekin egiten den bezala (hala nola, idaz-lehiaketak edota irabazi edota kirol jardueretan emaitza bikainak lortzen direnean), eskolak horretaz baliatu eta horren berri publikoa eman beharko luke gainera.

Ikastolak lizentzia pribatua duen softwarea soilik erabiltzen badu ikasleari software hori etxera eraman eta berarekin jolastu eta ikertzeko aukera kentzen zaio. Softwarea barrutik ezagutzeko aukera izatea zerbait garrantzitsua dela uste dugu; softwarea ez da soilik erosten den produktu bat, baizik eta ikasteko eta norberaren ezagutza zabaltzeko baliabide bat. Matematika, idazketa, margolaritza edota musika bezala, aplikazioen eraikuntza bizi dugun Aro Digitalean geroz eta garrantzi gehiago duen kultur espresio bat da. Eskolaren rola aplikazio hauen ezagutzan lehen urratsak eman eta, etorkizunari begira, oinarrizko gaitasun digitalak lortzen laguntzea da. Hoorela bakarrik lortuko dugu, softwarekiko menpekotasunik izango ez duten etorkizuneko profesionalak lortzea. Gaur egun gertatzen ari den bilakaera teknologikoa azkarrari aurre egingo dioten profesionalak bultzatu behar ditugu gure eskoletan.

- SOFTWARE ASKEA ERAIKITZAILEA DA

Konstruktibismoaren arabera, aprendizaiak, egungo eta iraganeko ezagutzetan oinarrituta, ikasleak ideiak berriak eraikitzeke jarraitzen duen prozesua da. Horrela, software askeak bultzatzen dituen elkarlan eta askatasun printzipioak aprendizaiak eredu honentzat marko ideala suposatzen duela pentsatzen dugu. Izan ere..

- ...ezagutza orokorra eta bere eraikuntzarako beharrezkoak diren baliabide guztietarako (oinarrizko kodea, eskuliburuak, bideotutorialak...) irisgarritasuna librea eskaintzen du.
- ...software libreko proiektuak bultzatzen dituzten komunitate zientifikoetan elkarlanean aritzea bultzatzen du (ezin da ahaztu software askea munduko komunitate zientifikorik handiena eratzen duela)
- ...gizaki bakoitzaren gaitasun, behar, interes eta berezitasunen arabera oportazioekin eraikitzen diren komunitateak ahalbidetzen ditu.

Konstruktibismoa izanik azken hezkuntza erreformen oinarria; horixe da hain zuzen ere, duela gutxi onartu den Euskal Curriculumaren ardatz nagusietako bat. Ezin dugu

horrelako testuinguru metodologiko bat imajinatu software pribatiboan oinarrituz, bere ezaugarri nagusienak bezala ezagutzaren errepresioa eta oskurantismoa izanik. Software askearen bitartez ezagutzaren eta informazioaren diseminazioa bermatzen dira, bertan ikasleek modu partehartzaile batean...

- ...elkarlanean lan egiten dute aktiboki arazo konponbidean
 - ..benetako arazo konplexuei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak, bitartekoak eta jarrerak garatu beharko dituzten
 - ...arazo horien aurrean nola lan egin ikasi beharko dute.
- SOFTWARE ASKEA ETIKOA DA

XXI. mende hasiera honetan asko dira (irakasle batzuk ere, tartean) oraindik eskolaren rol nagusia lanerako edota unibertsitaterako ikasleak entrenatzea dela helburu nagusia. Hori horrela bada, eskolaren helburu nagusia enpresen errentagarritasuna hobetzeko langile sumiso eta merkeak entrenatzea bada, orduan ez du garrantzirik izango zein motatako softwarea erabiliko dugun.

Dena dela, ez du ematen hori denik azken curriculumetan islatzen den filosofia. Hauetan curriculumaren helburu nagusia bizitzarako ongi prestatutako pertsonak lortzea izango litzateke. Horrela oinarritzko konpetentzia eta azpi-konpetentzien lorpenean garrantzia berezia hartzen dute ingurunearen zainketarekin zerikusia dutenak (hondakinen birziklaketa, adibidez), harreman pertsonalekin eta komunikazioarekin zerikusi zuzena dutenak (bizikidetzeta eta gatazken konponketa, adibidez) edota gizarte mailako harremanekin erlazionatutakoak (komunitate dialogikoak, adibidez). Iruditzen zaigu software askea ere testuinguru honetan txertatu beharko litzatekeela, izan ere, ikasleek software askea erabili eta ezagutzen badute, software askea erabiliko dute eskolaldia amaitutakoan eta horrek, multinazional eta enpresa erraldoiekiko askeagoak bihurtuko ditu.

Software askeak pentsakera kritikoa eta malgua duten hiritarrak eratzten laguntzen du, sortzaile, berritzaile eta ekintzaileak. Etengabeko ikaskuntzaren ideia barneratuta duten hiritarrak bultzatzen ditu.

Arestian esan dugun bezala, entrenatzeko edozein software izan daiteke baiagarria, baina hezitzeko, zalantzarik gabe software askea egokiagoa da. Meritu pertsonalean eta giza solidaritatean oinarritutako balio eta jarrera positiboak bultzatzen ditu. Hauen artean:

- Ez dagoela dena eginda, oraindik erronkak badirela
- Gauzak beti hobetu daitezkeela
- Jarrera eraikitzaile bat izatea
- Adin, arraza, giza-status edota totuluen gainetik, komunitate lokal nahiz internazionalan lagundu ahal daitezkeela
- Egia/perfekziora gerturatzeko modu asko daudela eta gizaki/talde bakoitzak bere ekarpena egiten duela
- Kide/komunitate bakoitzarentzat egokiena dena, taldeko behar/espektatibekin

arabera askatasunez erabakitzen dela

- Denon denongandik ikasteko aukera daukagula; inor ez dela ahalguztiduna edota orojakilea
- Ezagutza modu librean zabaltzeko aukera badagoela (klasea ematen dugunean ahalegintzen garena, hain zuzen ere)
- Ez dela diskriminatzen.
- Taldean lan egin modu kolaboratiboan
- Ikertzeko, sortzeko, eraldatzeko eta ikasteko askatuna dugula

Horrela, software askeak gure gazteek euren gaitasunak garatzeko esparru bat eskaintzen du, inongo diskriminaziorik gabeko testuinguru batean. Meritokrazian oinarrituta, bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu bere konpetentzia eta gaitasunen arabera.

- SOFTWARE ASKEA LEGALA DA

Inork ezin du ukatu eskolaren oinarrizko misioetako bat hiritar onak lortzea dela, euren laguntza beharko duten bizilagunak laguntzeko prest egongo direnak. Richard Stallman-en hitzetan *“ordenagiluen eremuan, ikasleak euren artean softwarea partekatzen irakastea”* esan nahiko luke. *“Oinarrizko irakaskuntzan, beste edozeren gainetik, ikasleei zera adierazi beharko litzaieke: eskolara softwarea eramaten baduzu, zure lagunekin partekatu beharko duzu. Noski, eskolak erakusten duena praktikan jarri beharko luke: eskolan instalatutako software guztia ikasleen esku ipini beharko luke honek kopiatu, etxera eraman eta edozeinekin banatu ahal izateko”*.

Ukaezina da ere, gaur egun gure ikastoletan ematen den lizentziarik gabeko softwarearen erabilera eta honen partekatzea errealitate bat dela. Lizentzien ordainketa jasan ezina den eskolek software propietarioaren legez kanpoko kopiak erabiltzea jotzen dute, munduko egoera arruntena izango balitz bezala.

Irakaskuntza munduan hain arrunta den jokabide hau bere eginkizunarekin koherentzia falta izugarria adierazten du. Honen adibide garbiena Ikastolen Konfederazioak ekoizten dituen baliabide digitalekin gertatzen da. Konfederazioak ekoizten dituen software eta aplikazio desberdinak P2P aplikazioen bitartez jaitsi, hauek kopiatu eta partekatzea legez kanpoko ekintza dela esaten zaigu behin baino gehiagotan. Baina Konfederazioa osatzen dugun ikastolok eta konfederazioak berak, lizentziarik gabeko softwarearen kopiak eta banaketak egitea normaltasunez hartzen dugu.

Gehiago oraindik, Konfederazioak bultzatzen dituen formazio ikastaro asko software pribatiboan oinarritutaakoak izaten dira. Erabiltzen diren aplikazioetako askok gainera, kostu handiko lizentzia duten softwarearenak izaten dira. Ikastaro hauetan erabiliko den softwarea ilegalak izango dela naturaltasunez onartzen da, nahiz eta garbi eduki ikastolon jokabide hori legearen kontrako dela.

Software propietarioa erabiltzen badugu irakasteko, ikastolok eta gure ikasleek lizentziak erostera behartzen ari gara. Azken finean, legez kanpoko ekintza bat burutzea behartzen ari gara ikastolen komunitate osoa.

Hezitzaileak garen momentutik, egoera hori normalizatzea derrigorrezkoa ikusten dugu. Software askea erabiliz aurrean aipatutako jokabideak zilegiak eta lege barnekoak bihurtzen dira.

- SOFTWARE ASKEA ANITZA DA

Software askearen inguruan sortutako aplikazioen kopurua izugarria da. Edozein arlo curricularrerako diseinatutako software askeako aplikazioak aurki ditzakegu. Aplikazio espezifiko ugari topatuko ditugu matematika, kimika, geografia... eta beste hainbat arloetarako ere.

Aniztasun honek badu abantail txiki bat. Izan ere, irakasleok gure eguneroko lanerako software generikoak nagusiki erabiltzen baditugu ere (ofimatika eta edizio aplikazioak batez ere) beti ditugu software espezifiko beharra, eskolaurre eta LHko lehenengo ziklorako adibidez (multimedia karga handiko aplikazioak izan behar direnak); edota dbh eta batxilergoko arlo espezikoetan erabiltzeko, adibidez (geometria, formulazioa...). Ez da zaila software askeko katalogoan gure behar horiek asetuko dituzten aplikazioak aurkitzea.

Asko hitz egin da, eta hitzegiten da oraindik, software askearen “kalitate” faltari buruz. Eztabaida hau, batez ere, duela urte batzuetako kontua da, irakaskuntza erabiltzen zen softwarea nagusiki lokalean erabiltzen zenean.

Horrela, ekipoetan instalatutako software generikoari buruz ari bagara (sistema eragileak, ofimatikako aplikazioak, irudi eta bideo editoreak...) oraindik aldea egon daitekeela esan daiteke. Baina, ukazina da baita ere:

- Irakaskuntzako kide guztien gehiengo batentzat goi-mailako aplikazio hauetako askok eskaintzen dituzten tresna asko ez direla erabilgarriak.
- Poliki poliki, aplikazio hauen artean dagoen aldea murrizten ari dela konstatazio bat da. Garatzaile komunitate internazionalaren lanaren ondorioz, tarte hori geroz eta txikiagoa dela esan daiteke.
- Sistema eragilearen kasu konkretuari dagokionez, esan daiteke, gaur egun, badirela Linux banaketak (Ubuntu izan daiteke adibide garbiena) Windowsekiko inolako alderik aurkezten ez dutenak. Sistema egonkorak, seguruak eta fidagarriak izateko kalitate handia eskaintzen dituzten sistema eragileak dira.

Software generiko hauetatik kanpo, behar bereziak asetzeko aplikazioak behar direnean, gehienetan software askera jo beharko genuke. Izan ere, software enpresa gehienek irakaskuntzaren behar berezi hauetara egokitzen diren software espezifikoak ez baitie arreta handia jartzen.

Dena den, eta dagoeneko aurrean aipatu izan dugun bezala, irakaskuntzan geroz eta garrantzia handiagoa hartzen hasi da internet web aplikazio bezala. Geroz eta gehiago dira lan esparru berri honetan erabiltzen ditugun web aplikazioak. Eta

hemen zalantzarik gabe esan dezakegu software askean oinarritutako aplikazioak nagusi direla, bai kopuruan baita kalitatean ere. Software garatzaile nagusiek alde batera utzi duten esparru berri honetan nagusitasuna duten aplikazioak software askearen mundutik bultzatukoak direla ukazina da. Gure egunerokotasunean oso lagungarriak diren web baliabide berriak etengabe sortzen ari dira, gauza sinpleak egiten dituzte eta, gehienak, eraabilerrazak dira.

Puntu honetan, ñabardura txiki bate gin beharko genuke. Izan ere, egia da aplikazio hauetako asko ezin direla software askearen multzoan txertatu, askok ez baitute betetzen horrela izateko bete beharreko lau baldintzak. Baina, hauen erabilera dohainekoa da, beraz, lizentzia ekonomikoekiko askeak eta askoren kasuan gainera, kodea irekia izaten da, nahi duenak honen gainean moldaketak egin ditzan.

- SOFTWARE ASKEA MERKEA DA

Irakaskuntza munduan lanean gabiltzanok badakigu zeinen garrantzitsua den guretzat oreka ekonomiko bat bilatzea ikastolak dituen diru sarreraren eta gastuen artean. IKTen esparruan, non gastuak batez ere kopuru handiak suposa dezaketen, oreka hori lortzea ez da erraza.

Software askeak atal honetan eragin positiboa izan dezake, izan ere, kalitatezko softwarea eskuratzeko egin beharreko hasierako inbertsioa nulua da. Aplikazio hauen eguneraketak ere, modu beretsuan lortzen dira.

Baina software askea ez da doahinekkoa. Softwarearen inplementazio eta mantenuak diru kostu bat suposatzen duela onartu beharrean gaude. Azken finean erabilerari lotutako kostu bat beti du lotuta; den den, software askean oinarritutako sare batetan ematen den gastua ordenagailuko, software propietarioa erabiliz ematen denaren azpitik egoten da.

Esan beharra dago badirela arrazoi objektiboak goikoa justifikatzen dutenak:

- Alde batetik, software askearen ezaugarri bat bere egonkortasuna eta atzean duen kodearen kalitatea da. Honek, denbora epe luzean mantenu lanik burutu behar ez izatea dakar.
- Bestalde, software askea kanpotik etor daitezkeen erasoekiko aske dago hein handi batean. Birusak, spama eta bestelako erasoek suposatzen duten arriskua baxua da, hauei lotutako mantenu arazoak saihesten direlarik.
- Atzean duen komunitate zabalari esker, arazo baten aurrean irtenbidea bilatzea software propietarioarekin baino errazagoa bihurtzen da. Askotan, beharrezkoa izaten den laguntza hori aplikazioak garatu dituzten garatzaileetatik zuzenean jasotzen da; alegia, arazoaren muinarekin ematea askotan ez da gauza zaila izaten.

Dena den, gure ikastolaren egoera konkretuari begira, onartu beharrean gaude software askean oinarritutako sare baten garapenak kostu handia suposa dezakeela une honetan. Izan ere, Windowspean garatutako sarea software askean

oinarritutako beste batera migratzeak sor ditzakeen inplementazio eta garapen kostuak, sarea zerotik abian jartzea baino handiagoa izango baita. Gure egitura osoa Windows ekipoetara egokitu ditugu: hardware gehiena Windowspean lan egiteko konfiguratuta daukagu; erabiltzen ditugun hainbat aplikazio (IKASWEB, IKASDAT...) ez daude prestatuta software askeko ingurune baterako. Honek guztiak, sarearen egitura zerotik hasita konfiguratzen hasiko bagina baina lan gehiago emango dituela garbi izan behar dugu: hasierako urratsen ondorioz agertuko diren arazoaren aurrean, egin beharreko egokitzapenen aurrean... beharko diren lan-orduak handiak izango direla onartu beharrean gaude.